

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

#### Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

#### **Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Errege-Erregina Katolikoek kaleko 30.a irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak orotariko tasazio bidez desjabetzeko proiektuari**

Hau erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko urtarrilaren 22an egindako ohiko bilkuran:

1. Ebaztea J. A. G. C-k Gasteizko Errege-Erregina Katolikoek kaleko 30.a irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak orotariko tasazio bidez desjabetzeko dosierra tramitera onartzearen kontra aurkeztutako alegazioak, eta dossier honi erantsitako txostenetan modu arrazoituan adierazitako moduan, alegazio horiek ez onartzea.

2. Hasierako onespena ematea Gasteizko Errege-Erregina Katolikoek kaleko 30.a irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak orotariko tasazioaren bidez desjabetzeko proiektuari.

3. Gasteizko Errege-Erregina Katolikoek kaleko 30.eko etxejabeen elkartea aitortzea desjabetze honen onuradun.

4. Proiektua jendaurrean jartzea hilabetez, eta ALHAOn, iragarki-taulan eta zabalkunde handieneko egunkarietako batean argitaratzea, interesaturik dauden guztiek oharrak eta erreklamazioak aurkezterik izan dezaten, batez ere beren ondasunen eta eskubideen titulartasun eta balorazioari dagokionez.

5. Halaber, dossierrean ondasun edo eskubideen titular gisa agertzen direnei banan banan jakinaraztea, hitzez hitz, balioa zehazteko orriak eta kalte-ordain orriak—balioa zehazteko orri horietan jasotzen dira aplika daitezkeen balioeste-irizpideak—, eta alegazioen ebazpen-txostena, hilabeteko epean —jakinarazte-egunaren biharamunetik— alegazioak aurkezterik izan dezaten, eta orobat jakinaraztea onuraduntzat jotako entitateari ere.

6. Jakinaraztea hiru hilabetekoa dela desjabetzeko dosierraren berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea, hasteko erabaki hau hartzen den egunetik hasita; dena den, epea geldieran egongo da, baldin eta interesdunei akatsak zuzen ditzatela edo beharrezkoak diren agiriak edo beste judizio-elementu batzuk bidal ditzatela eskatu behar bazaie, interesdunari eskakizuna jakinarazten zaionetik agindutakoa bete arteko denboran edo, bete ezean, betetzeko emandako epean.

7. 2020ko azaroaren 12ko ebazpenean —Errege-Erregina Katolikoek kaleko 30.eko jabeen komunitateari obra-lizentzia ematen zaio horren bidez, ataria eraberritu eta igogailua instalatzeko (Eraikuntzen Zerbitzuko 2017/RJERF00431 dosierra)— obrak hasteko emandako epea etetea, desjabetze-dosierra ebazten den arte.

8. Orobat jakinaraztea hasierako onarpen hau Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sailako Eraikuntzen Zerbitzuari, dagozkion ondorioetarako.

9. Errege-Erregina Katolikoaren kaleko 30.eko jabeen erkidegoari jakinaraztea ezen, indarrean dauden ordenantza fiskalak aplikatuz —(2019ko abenduaren 17ko ALHAO, 148. zk.–, desjabetze dosierraren hasierako onespenerekin batera, dagokion tasa —“jabetza nahitaez kentzeko dosierak izapidetzea, hirugarren batek eskatuta edo onuraduna administrazio publikoa ez bada— eskatuko dela; hau da 459,85 euro (laurehun eta berrogeita hemeretzi euro eta laurogeita bost zentimo), eta kopuru hori desjabetzeko dosierra behin betiko onetsi aurretik ordaindu beharko dela. Horretarako, ordainketa-gutuna bidaliko die Ogasun Sailak.

10. Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariari ahalmena ematea Udalaren izenean eta haren ordezkari beharrezko diren agiri publiko nahiz pribatuak izenpetzeko.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urtarrilaren 27an

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**

#### Nahitaez okupatu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda

Nahitaezko desjabetzearen inguruko legedian eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritakoaren ildotik egin da zerrenda, zeinek Errege-Erregina Katolikoaren kaleko 30.a irisgarri egiteko okupatu beharrezkotzat jotzen diren ondasun eta eskubideak biltzen baititu, bai eta horien titularren izenak ere.

FUNTSA	KATASTRO-ERREFERENTZIA	ERAGINA		TITULARRAK	ERRENTARIAK
		BEHEKO SOLAIRUAREN AZALERA, M <sup>2</sup>	SOLAIRUARTEAREN AZALERA M <sup>2</sup>		
Lonja	595702530000010012KT	2	4,53	J.A.G.C. NAN: 16281269Y (ehuneko 100eko jabetza soila) O.C.C. NAN: 34909127A (ehuneko 100, gozamenerako)	Ez daude jasota